



ALKATE DEKRETUA

Nik, Iزارo Elorza Arreguik, Oñatiko Alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz, ondorengoa agintzea erabaki dut:

Hilerriko Erregelamendua berritzeko aurretiazko kontsulta publikoa (2026ZUD00002)

Udal teknikariaren txostenak honela dio hitzez hitz:

Oñatiko Udaleko Udal Hilerriaren Erregimen eta Funtzionamendurako Erregelamendua berritzea Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, arauak egiteko prozeduran herritarrek parte hartuko dutela bermatzeko, ordenantza-proiektua egin aurretik, kontsulta publikoa bideratuko da administrazio eskudunaren web-atariaren bidez.

Kontsulta horretan, eragina izan dezaketen subjektuen eta etorkizuneko antolakunde adierazgarrien iritzia jasoko da, honako hauei buruz:

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak
- b) Arau hau onestea beharrezko eta egoki den
- c) Arauaren helburuak
- d) Izan litezkeen bestelako aukera arautzaile eta ez-arautzaileak.

a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak

Gaur egun Oñatiko Udalak badu Hilerria kudeatzeko Erregelamendua, 1994ko ekainaren 15ean argitaratua, hain zuzen ere.

Erregelamenduak, gaur egun, eraberritzea eta eguneratzea behar du; izan ere, emakida-epeak mugatzeko eta ehorzketa-eskubideetan hobekuntzak barnebiltzeko aldaketak txertatu nahi dira.

Erregelamenduan barnebildu nahi diren aldaketa esanguratsuenak honakoak dira, beste batzuen artean:

- Emakida-epeak mugatzea.
- Gaur egungo hilobi-motak zehaztea eta definitzea.
- Ehorzketa-eskubideen titularren eskualdaketa ahalbidetzea, baldintza jakin batzuetan.
- Emakida-epea zehaztu gabe duten hilobien erreferentzia-data zehaztea.
- Oro har, Erregelamendua legezko eskakizunetara egokitzea, gaur egungoaren antzintasuna dela eta.

b) Arau hau onestea beharrezkoa eta egokia den



OÑATI
dabilen herria

Udal Hilerriaren Erregelamendua berritzea beharrezkoa da gaur egungo errealitatera egokitzeke eta herritarren beharrei erantzuteke.

1994ko Erregelamendua onartu zenetik, lege-aldaketa garrantzitsuak izan dira; hori dela eta, beharrezkoa da arau hau eguneratzea. Horrela, esparruan indarrean dauden legeekiko koherentzia bermatuko da eta zerbitzuaren kudeaketa hobetuko da.

c) Arauaren helburuak

Helburu nagusia indarren dagoen araudia berritzea da, jabari publikoaren kudeaketa egokian eta segurtasun juridiko printzipioan oinarrituta.

Helburu garrantzitsuenak, honakoak izango dira:

- Emakida-epeak mugatzea. Erregelamendu berriak denbora-mugak ezarriko ditu, Herri Administrazioaren Ondareari buruzko 33/2003 Legeak ezarritakoaren arabera. Horrela, kudeaketa arrazionalagoa eta jasangarriagoa lortuko da.
- Ehorzketa-eskubideen eskualdaketa arautuko dira. Emakiden "*inter vivos*" eta "*mortis causa*" eskualdaketen araudi argia eta zehatza ezarriko da, eta kasu bakoitzean bete beharreko baldintzak zehaztuko dira.
- Emakida-epea zehaztu gabe duten hilobien erreferentzia-data finkatzea. Araudiak irizpide objektibo bat erabiliko du emakida-epea kalkulatzeko orduan; horrela, emakida horiek erregularizatzeko eta araubide juridiko berrira egokitzeke aukera emango du.
- Segurtasun juridikoa indartzea. Arau-testu berriak titularren prozedurak, eskubideak eta betebeharrak argitzen ditu.

d) Izan litezkeen bestelako aukera arautzaile eta ez-arautzaileak

Toki-erakundeen araugintza- edo erregelamendu- ahalaren adierazpenak dira toki-ordenantzak eta erregelamenduak. Beraz, erreferentziazko gaiaren araudia garatzeko Udalak duen aukera arautzaile bakarra dira, baina horrek ez du eragozten oinarrietan arautu daitezkeen xedapenak aplikatzea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 133. artikulua xedatutakoari jarraituta, Udalaren webgunean kontsulta publikorako epea zabaltzeko helburuarekin, hasierako dokumentua publikatzea.

Proposamena:

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikulua arabera, Hilerriaren Erregimen eta Funtzionamendurako Erregelamendua egiteko kontsulta publikoa abian jartzea.





OÑATI
dabilen herria

Horregatik guztiagatik, teknikariaren balorazioa eta proposamena ikusirik, nik, Izaro Elorza Arreguik, Oñatiko Alkatea naizen honek, erabakitzen dut:

Lehenengoa.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluaaren arabera, Hilerriaren Erregimen eta Funtzionamendurako Erregelamendua egiteko kontsulta publikoa abian jartzea

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut.

Oñatin, 2026ko otsailaren 20a



Alkatea

OÑATIKO UDALA

Izaro Elorza Arregui

